

## V - BESTELAKOAK

### URAREN EUSKAL AGENTZIA

#### MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

#### **Arabako Legutioko udalerrian, Urbina herrian dagoen Celsa Atlantic, SL FDP enpresan sortutako hondakin urak isurtzeko baimenaren berrikustea**

Espediente-zenbakia: RAV-A-2018-0024

Eskatzailea: Celsa Atlantic, SL FDP

Celsa Atlantic, SL FDPk eskatu du Legutioko udalerrian, Urbina herrian daukan enpresan sortutako hondakin urak isurtzeko baimenaren berrikustea. Horretarako dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezzen, hogeita hamar eguneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten Legutioko udalean edo lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian edo errege-dekretu horren luzapenetan xedatutakoa betetzeko, errege-dekretu horren edo, hala badagokio, haren luzapenen indarraldia amaitu eta hurrengo egunean hasiko da informazioa jendaurrean jartzeko epea.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 22an

*Mediterraneoko Arroen bulegoburua*  
**JAVIER AGUIRRE ORCAJO**